



*Apirilaren 26an irtengo gara kalera, PAH Hipotekak Kalte Eginikoen Nafarroako Plataformak deituta. Mobilizazioa Hemingwayren monumentutik abiatuko da 19:00etan, eta Iruñeko udaletxean amaituko da. Hainbat eragilek eta sindikatuk babesak eman diogu manifestazioari.*

PAH Hipotekak Kalte Eginikoen Nafarroako Plataformak prentsaurreko bat eman du gaur Iruñean, apirilaren 26ko manifestazioarekin bat egin duten eragileen babesarekin. Mobilizazioa iragartzeaz gain, Espainiako Kongresuan maiatzaren 14an aurkeztuko duten etxebizitza lege proposamenaren edukien berri eman dute: etxebizitza ordainean lagatzeko eskubidea, alokairu bermatua, etxe kaleratzerik eza, etxebizitza soziala sustatzeko neurriak eta oinarrizko baliabideak bermatzea. LABek proposamenarekin egin du bat.